

**ARABAKO CAMPUSA**  
**KUDEAKETA TXOSTENA**  
**2018/2019**

**1. Azpiegiturak**

---

**1.1. Erreforma, hobetze eta egokitzeko esku hartzeen plana ikastegi ezberdinetan gauzatzea.**

- ❖ Aurreko ekitaldietan egindakoari jarraituta, jarraipena eman zaie sabai akustiko modular berriak instalatzeko lanei, egokitzapen akustikoa bermatzeko. Halaber, argiteria instalazioak egokitu dira, ingurumena gehiago zaintzan duten argiak instalatuta campuseko ikasgela eta lokaletan. Horretara, PI 92/18 lehiaketaren bidez zenbait areto eta eremu egokitu da.
- ❖ Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, Hezkuntza atalean:
  - Eraldatu da 203. Ikasgela, sabai akustiko berriak instalatuz eta luminariak eta larrialdietarako luminariak ere berrituz.
  - Halaber, bigarren solairuko bulegoen korridorearen sabaia ere aldatu da, sabai akustiko berriak jarriz eta luminariak eta larrialdietarako luminariak berrituz.
  - Bigarren solairuko zenbait aretotako leihoak ere berritu dira, isolamendu termiko eta akustikoa handitzeko eta eraikinaren transmisibitate termikoa hobetzeko.
- ❖ Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan:
  - Zenbait bulego berritu da eta egokitu dira lehenengo solairuko korridoreetako luminariak.
- ❖ Farmazia fakultatean:
  - Egokitu da IKD eremu bat, eraikineko beheko solairuan kokatutako (sabai akustikoak, luminariak eta estaldurak, ikasleek lan eta aisia eremu gisa erabil dezaten).
  - Era berean, 2.6 eta 2.2 ikasgelak eraldatu dira eta erabilera anitzeko laborategiko mahaiak elektrifikatu dira.

- Halaber, luminaria berriak eta argiztapenaren kontrola instalatu dira lehenengo solairuko E1 korridorean, bai eta larrialdietarako luminaria ekoiraunkorrek ere lehenengo solairuko E1 eta E2 korridoreetan, aurrezki energetikoa handitzeko.
- Egin dira farmaziako simulaziorako ikasgela sortu ahal izateko hasi aurreko lanak.
- ❖ Letren Fakultatean:
  - Luminaria berriak eta argiztapen kontrola instalatu diran beheko solairuko korridoreetan.
  - Leihateak berriztu dira iparraldeko fatxadan, aluminiozko eta beira klimatikoazko arotzeria berriarekin.
- ❖ Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean:
  - Instalatu dira tabique akustiko berriak mintegi batean eta irakasleen gelan, insonorizazioa hobetzeko.
- ❖ Zenbait lan egin da Micaela Portilla ikerguneko arkeologiarako laborategiaren instalazioak hobetzeko asmoz.
- ❖ Campuseko eraikin batzuetako zenbait paramenturen estaldurek duten narriadura ikusita, zenbait pintura lan egin da Hezkuntza eta Kirola fakultatean, Gazteisko Ingeniaritza eskolan, Elurreta ikasgelategian eta Lascaray ikergunean.
- ❖ Jarraipena eman zaie campuseko eraikinen sarbide nagusietan instalatutako ate automatikoak berrikusi eta mantentzeko lanei.

## **1.2. Gurutzetako Medikuntzako Irakasgunearen kokapen berria definitzeko ekintzak (2018/2019 ikasturtean eta hurrengoetan).**

Arabako Unibertsitate Ospitalea zabaldu eta hobetzeko lanak direla medio, eraitsi da Arabako Medikuntzako Irakasgunea hartzen zuen eraikina. Behin behineko, campusean kokatu da irakasgune horretako irakaskuntza eta administrazio jarduna, Arabako Unibertsitate Ospitalearen inguruetan ez zegoelako azpiegiturarik, burutu beharreko erabilerak bermatzeko moduko ezaugarriak zituenik.

Osakidetza Euskal Osasun Sistemako zuzendari nagusiaren urriaren 31ko 1128/2018 erabakiak baimena eman zion Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateari Arabako Medikuntzako Irakasgunea Arabako Unibertsitate Ospitalearen Txagorritxuko egoitza fisikoaren inguruetan koka

zezan. Aipatu erabakiaren arabera, Osakidetzak konpromisoa hartzen du horretarako lursaila egokitzeko, ezelako kontraprestaziorik gabe.

2018ko abenduaren 5eko erabakiaren bidez, UPV/EHUK espedientea onetsi zen Arabako Medikuntzako Irakasgunerako administrazio eta irakaskuntza erabilera izango duen aurrefabrikatutako eraikin bat hornitu eta alokairuan, erosteko aukerarekin, instalatzeko kontratua esleitzeko prozedurari hasiera emateko. Honela, behineko behineko instalazioak erabili ahal izango dira, Arabako Unibertsitate Ospitalean irakaskuntzan erabiltzeko eraikin berri bat eraiki arte, irakaskuntza eta administrazioarako xedaturiko azpiegitura izan arte.

PI 181/18 argitaratuta eta eskaintzak aurkezteko epea amaitu zelarik, 2019ko urtarrilaren 7ko erabakiak hutsik utzi zuen prozedura. Une hauetan, Osakidetzaren plan zuzendariaren eguneratzea xehetasunez ezagutu zain gaude Arabako Unibertsitate Ospitaleari dagokionean, 2019/2020 ekitaldian zehar egin beharko diren ekintzak definituko baditugu.

## **2. Garapen akademikoa eta ikerketa garapena**

---

### **2.1. 2.9.3 Komunikazio zientifikoko programak sustatzea, hainbat egitura eta ekitaldiren bidez:**

2018ko *Zientzia Astea* antolatu, Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzaren lankidetzaz. Arabako campusaren kasuan, *Zientzia Astea 2018* azaroaren 8 eta 11 bitartean burutu zen Bibat museoan eta 3.000 pertsona baino gehiago egon ziren programatutako jarduera ezberdinetan.

### **2.2. Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan IIPen gaitasunak eta prestakuntza hobetzera bideratutako jarduerak egin dira.**

Irakasle eta ikertzaileen premia espezifikoa eta zeharkakoak bete asmoa duen deialdian, hau da, "Ikerkuntzarako laguntza metodologikorako mintegi iraunkorra" izeneko programan, gaitasunak hobetzera bideratutako prestakuntza eskaini da Arabako Campusean. Tarte honetan, 6 ikastaro antolatu dira, eta 80 emakumek eta 40 gizonek hartu dute parte.

### **2.3. Prestakuntza eskaintzaren, programa osagarrien eta bestelako jardueren komunikazioa erraztea.**

2.3.1. Udako teknologia campusa antolatzea eta gauzatzea, DLHko 5. eta 6. mailetakoa, eta DBHko 1. eta 2. mailetakoa ikasleentzat. Campusak AGORA Teknocamp du izena, eta Arabako Foru Aldundiarekin, Egibiderek, Ikaslan Arabarekin eta Innobasquerekin elkarlanean egin da.

Campus honen hirugarren edizioan 91 umek hartu dute parte guztira (34 neska – aurreko edizioan baino % 10 gehiago – eta 57 mutiko). 15 pertsonatako taldeak sortuta, Arabako Campuseko Ingeniaritza Eskolan antolatutako jarduerak ikusi ahal izan dituzte. Guztira, 13 irakasle-ikertzailek diseinatu dituzte jarduerak eta, hauen begiradapean, 6 ikasle dinamizatu dituzte jarduerok. Campus honen bidez, bokazioak ernatu nahi dira zientzien eta teknologiaren arloan.

2.3.2. UPV/EHUko Udako Ikastaroak Fundazioari laguntzea Araban egiten diren ikastaroen antolakuntzan.

Aurten, UPV/EHUren XXXVII. udako ikastaroetan, Arabako Campusean 7 ikastaro antolatzen lagundu da:

- Entsegu kliniko baten bizi zikloa, ekainak 20-21.
- 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak. Gure politika publikoak eraginkorrago bihurtu, ekainak 27-28.
- Hiri hezlea: udalak eta esku hartzeko modeloak eskola segregazioaren aurrean, uztailak 10-11.
- Gasteizko Nazioarteko Zuzenbide eta Nazioarteko Harremani buruzko ikastaroak, uztailak 16-19.
- Bandoen burrutatik kaparetasun unibertsalera. Euskal Herria Erdi Aroaren amaieran, ekainak 26-28.
- Federalismoa eta Estatua Espainian: perspektiba historikoa, uztailak 04-05.
- Arkitektura eta Hirigintzarako Eraginkortasun Energetikoari eta Jasangarritasunari buruzko 10. Europar Kongresua (EESAP 10) eta Eraikuntza Aurreratuari buruzko 3. Nazioarteko Kongresua (CICA 3), irailak 11-12.

### **3. Esperientzia Gelak**

---

#### **3.1. Giza Zientziak titulazioaren irakaskuntza antolatu.**

Giza Zientzien titulazioa antolatu da, lau urteko iraupena duena, enborreko 18 irakasgairekin eta hautazko 22 irakasgairekin.

#### **3.2. Abian jartzea Adinekoentzako Unibertsitate Ikastaroak (AUI) eta Ikastaro Osagarrien eskaintza.**

- ❖ Helduentzako Unibertsitate Ikastaroak (HUI) antolatu dira, karreran egin ez ziren hautazko irakasgaiekin eta "Historia", "Artearen historia" eta "Geografia eta Lurraldearen Antolamendua" graduetako irakaskuntza arautuko planetako irakasgaiekin.
- ❖ Hamaika ikastaro osagarri eskaini dira, ikasketa planetatik kanpo, irakasle espezializatuen eskutik.

#### **3.3. Esperientzia Geletako ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen arlo akademikoaz kanpoko jarduerak antolatu.**

- ❖ Webgunean argitaratu dira irakasgai eta ikastaroen programak.
- ❖ Harrera jardunaldiak egin dira 1. ikasturteko ikasleentzat, irailaren 19an eta 20an. Zehazki, informazioa eman zaie titulazioari buruz, UPV/EHUren webgunea erabiltzeari buruzko tailer bat egin dute eta Campusaren bibliotekatik bisita gidatua egin dute.
- ❖ Matrikulazioari begira, afixak eta liburuxkak zabaldu dira.
- ❖ El Correo eta El Diario de Noticias de Álava egunkarietan iragarki bana argitaratu da matrikulazio epeen inguruan.
- ❖ Ikasturtearen inaugurazio ekitaldia antolatu da, 2018ko irailaren 24an, 18:00etan, Letren Fakultateko Areto Nagusian. Fernando Bayón Martín doktoreak eman zuen hasierako irakasgaia 'El tiempo recobrado. Lo que siempre deseábamos del ocio y siempre se lo pedíamos al trabajo' [Berreskuratutako denbora. Aisiaz erdietsi nahi eta beti lanari eskatu ohi geniona] tituluaz
- ❖ Oinarrizko informatika tailer bat antolatu da, funtsean, 1. ikasturteko ikasleentzat, 1. lauhilekoan. Horren helburua da IKTak erabiltzeko beldurrari aurre egitea eta "arrakala digitala" gainditzea; izan ere, oztopoa da egungo

gizartean parte hartzeko, eta eragotzi egiten du gure unibertsitatean bertan gero eta gehiago erabiltzen diren bitartekoetara sartzea.

- ❖ Bestelako ekintzak: irakasgaien programak osatzeko eta testuingurua emateko, zenbait jarduera egin dira, hala nola, hitzaldiak, bisitak museoetara, kultur ibilbideak, partaidetza OLBERen opera entsegu orokorretan, irteerak kontzertuetara, jardunaldiak eta abar. Ekintza horiek guztiek testuinguru jarri eta hedatu egin dute Esperientzia Geletan eskainitako prestakuntza, eta motibazio erantsia eman diete ikasleei.
- ❖ Ikasturtearen itxiera ekitaldia antolatu da, 2019ko maiatzaren 29an, Letren Fakultateko Areto Nagusian. Ekitaldi horretan, zuzendariak ikasturteko oroitidazkia azaldu zuen, bekak eta diplomak banatu zitzaizkien hamabosgarren promozioko ikasleei eta ikuskizuna eskaini zuen Algara dantza taldeak.

#### **3.4. Ikasgeletako ikasleen eta ikasle ohien kultur elkarteari (ACAEXA-AEIKE) irakaskuntza jarduerak eta hitzaldiak antolatzen lagundu.**

- ❖ 2019ko urtarrilaren 28 eta 29an, Esperientzia Gelen VII. Jardunaldiak batera antolatu ziren, Letra Fakultatearen Areto Nagusian. Aurtengoan, "Euskara begietan/El euskera en la mirada" izan da gai monografikoa.
- ❖ Esperientzia Geletako Antzerki tailerreko ea Testutik interpretaziora ikastaro osagarrietako ikasleen bi irakurketa dramatizatu egin ziren, ACAEXA antzerki taldearen eta Esperientzia Gelen lankidetzarekin.
- ❖ ACAEXA antzerki taldeak eta Esperientzia Gelek irakurketa dramatizatu bat eta antzerki lan bat egitea (Lord Arturoren krimena, A. Casonarena. 2019ko maiatzaren 30a. Mataukoko Jesús Ibáñez antzokia, Vitoria-Gasteiz).

#### **3.5. Argitaratzea eta hedatzea La voz de la experiencia / Esperientziaren ahotsa seihilabetekariaren 31. eta 32. zenbakiak. Esperientzia Geletako ikasleek egin dituzte.**

Aipatutako seihilabetekariaren bi zenbaki argitaratu eta hedatu dira.

### **3.6. Lankidetzak UPV/EHUko sail eta ikastegiekin, eta beste erakunde eta elkarte batzuekin, unibertsitateko gainerako ikasleentzat eta/edo hiritarrentzat irekita dauden jarduerak antolatzeke eta eskaintzeko.**

- ❖ Arte Erromanikoari buruzko III. jardunaldiak, *Arkitektura erromanikoa. Praktikotasunaren eta edertasunaren arteko oreka* izenburuz (bost hitzalditako zikloa otsailaren 20an, martxoaren 13an, martxoaren 27an, apirilaren 11n eta maiatzaren 8an, Letren Fakultateko ikasgela nagusian). Jardunaldiak UPV/EHUko Artearen eta Musikaren Historia Sailaren, Arte Erromanikoaren Lagunen Elkartearen eta "Erdi Aroko Araba" proiektuaren lankidetzan esker antolatu dira.
- ❖ CONECTAJOVEN proiektuan parte hartzea, 2018/2019 ikasturteko lehenengo lauhilekoan garatuta. Jarduera KZGUNEtan egindako proposamenetik sortu zen eta Gasteizko bigarren hezkuntzako zenbait institutu, Gasteizko udaleko adinekoen zentro soziokulturalak eta Arabako Esperientzia Gelak batu ditu bertan. Gure ikasleek aukera izan zuten belaunaldi arteko proiektu batean parte hartzeko, teknologia berrien eremuan ikasi eta zerbitzuan jarduteko. Lehendabiziko aldi honetan, esperientzia pilotua izanik, istanteko mezularitzarako erremintak landu ziren.
- ❖ "Traganetik salbatu eta etorkizunerantz proiektatuaz" proiektua, Hezkuntza eta Kirola fakultateko eta Arabako Esperientzia Geletako ikasleak batu dituen, garapen jasangarrirako helburuei buruzko proiektu batean, hiru fasetan banatuta: lehendabizi, kulturartekotasunari buruzko minorreko hezkuntza ikasleek aurretiko lan bat egin zuten ikertuz eta eztabaidatuz; beste aldetik, Esperientzia Geletako ikasle talde batek lan egin zuen aipatutako helburu horiek. World coffee izeneko teknikaren bidez, bigarren une batean (2019/2/21) campuseko pabiloian batu ziren bi titulazioetako, hezkuntzako eta Esperientzia Geletakoak, eztabaidatzeko mahai mistoetan eserita. Eraitza guztiekin erakusketa egin zen Hezkuntza eta Kirola fakultatean. Proiektua UPV/EHUren Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktika sailaren lankidetzaz antolatu da.
- ❖ Parte hartu 2019ko otsailaren 28an BC3 Aldaketa Klimatikorako Euskal Zentroak Bilboko Bizkaia eraikineko Bizkaia aretoan garapen jasangarriaren inguruan antolatu zuen belaunaldiarteko elkarretaratzean, Bilboko zenbait institututako ikasleei truke egindako jarduerak batean.



**3.7. Elkarrekiko informazio harremanak sortzea Arabako Aldundiaren Hirugarren Adinekoen Ikasgeletako eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Helduen Zentro Soziokulturaletako jarduera eskaintzaren inguruan.**

Esperientzia Gelen jardueren berri eman dugu Gasteizko adinekoen zentro soziokulturaletan, Vital fundazioan eta Arabako Aldundiaren Hirugarren Adinekoen Ikasgeletan. Gainera, erakunde horiek antolatzen dituzten jardueren berri eman zaie Esperientzia Geletako ikasleei.

#### **4. Hizkuntza garapena**

---

Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzaren eta Gipuzkoa eta Bizkaiko campuseko euskararako zuzendaritzen lankidetzaz:

##### **4.1. Euskararen III. Plan Zuzendariaren (2018-2022) oinarrien diseinuari heltzea.**

Burutu egin da Euskararen III. plan zuzendariaren diseinua eta hasiera eman zaie berori bete eta garatzeko lehendabiziko ekintzei.

##### **4.2. Euskararen erabilera unibertsitate eremuan sustatu.**

- ❖ Arabako campusak parte hartu du aktiboki EUSKARALDIA (2018) antolatzen eta burutzen, proiektua modu koordinatuan zabaltzen Gasteizko hiriarekin batera. Horretarako, Euskaraldia batzorde bat eta sare bat osatu zen campusean, masiboki izen emateko jardunaldi bat antolatu zen, proiektua azaltzeko saioak, Ahobizi eta Belarriprestak prestakuntza saioak, elkarretaratze guneak elkarri esperientziak trukatzeko eta beste.
- ❖ Halaber, EUSKARALDIA eta KORRIKA (Korrika 21, 2019) dinamizatu dira 2018/2019 ikasturtean zehar egindako jarduera eta ekintzekin. Eusko Ikaskuntzaren Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen e5 proiektuaren emaitzak aurkezteko jardunaldi bat antolatu zen, "Zuk nola amesten duzu euskararen etorkizuna?" izeneko eztabaida saio bat barne izanik. "Ttak!" umorezko bakarrizketa eta "bakean dagoena, bakean utzi" solasaldi umoretsua gozatu ahal izan ziren. Mintzanet aurkezteko jardunaldi bat egin zen. Txillardegiri omen egiteko ekitaldia egin zen Euskara Batuaren sorreran izan zuen inplikazioarengatik. Honen barruan, Kote Camachoren "Txillardegiren klika" dokumentala proiektatu zen eta eztabaida-solasaldia egin zen, Gidor Bilbao moderatzaile eta Cote Camacho, filmeko zuzendaria, Koldo Zuazo, Iñaki Camino eta Xabier Eizagirre parte hartzaile zituena. Hitz Adina Mintzo zikoan hartu da parte Oihaneder Euskararen Etxeak antolatuta, Gemma Sanginés-en "Nork esan zuen Gasteiz ez dela euskalduna?" hitzaldiarekin.
- ❖ Zientzia Euskaraz izeneko jardunaldia antolatu da, non eman baitziren dibulgaziorako hitzaldi zientifikoak (osasun zientzien, teknologiaren eta ingurumen zientzien arloan) ikusentzule guztientzat.

- ❖ EHUskalariak deialdia egin eta kudeatu da, euskararen erabilera sustatzeko unibertsitateko kideen artean (ikasleak, IIPak eta AZPkoak barne).
- ❖ Lazarraga Kultur Elkartearekin lankidetzan egin da (Vitoria-Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxea kudeatzen du), euskararen erabilera sustatzeko hala Campusean nola hirian.
- ❖ Aztertu egin da euskarak campusean duen erabilera, Euskal Soziolinguistika Klusterraren laguntzaz. Zehazkiago, gaztelania eta/edo euskararen erabilera ikertu da campuseko elkarrizketetan, Letren, Farmazia eta Hezkuntza eta Kirola fakultateetan. Lan ildo honetan datozen ikasturteetan segitzeko plangintza egin da.

#### **4.3. Euskara teknikoa sustatzeko jarduerak bultzatu.**

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Errektoreordetzarekin lankidetzan, euskaraz argitaratutako unibertsitate aldizkariak (Tantak, Ekaia, Gogoia, ASJU) argitalpena babestu da, bai eta LEGEAK bezalako bildumen garapena ere.

#### **4.4. II eta AZP prestatzeko jarduerak.**

Arabako Campuseko Errektoreordetzak, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Errektoreordetzarekin lankidetzan, "Euskararen Arloko Errektoreordetzaren euskarazko hobekuntza ikastaroak" izeneko hobekuntza ikastaro honen antolakuntzan hartu du parte.

#### **4.5. Euskarazko irakaskuntzarako materiala prestatu, egokitu eta zabaltzeko laguntza eman.**

- ❖ Testu liburuak euskaratzeko jarduerak lagundu dira, bai eta liburuak eta bitarteko materialak euskaraz sortzekoak ere (Testugintza eta Ikasmaterialgintza deialdia).
- ❖ Testuak unibertsitateko ikastegietan banatzea.
- ❖ Testuak Oihanederren banatzea.

#### **4.6. Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza bultzatzea campuseko unibertsitateko kideen artean: hizkuntzen laborategia kudeatzea.**

- ❖ Honako ikastaro hauek eskaini dira ingelesa lantzeko: 1) "Idazketa akademikoko saioak". Guztira 16 ordu eman dira (8 orduko ikastaroak, lauhileko bakoitzean errepikatuta), 11 parte hartzaileekin; 2) "Elkarrizketa saioak". Guztira 48 ordu eman dira (12 orduko ikastaroak, bi talde lauhileko bakoitzean), 22 parte hartzaileekin; 3) "Fonologia saioak: ELF (English as Lingua Franca)". Guztira 16 ordu eman dira (8 orduko ikastaroak, lauhileko bakoitzean errepikatuta), 8 parte hartzaileekin; 5) "TED ACADEMY". Guztira 20 talde eman dira (bi talde bigarren lauhilekoan), eta 25 parte hartzaile onartu ziren. Aurreko ikasturteetan bezala, 2018/2019 edizio honetan ere ikastaro trinko bat eskaini da, TOPTULTE azterketa beren-beregi prestatzeko; aitzitik, bertan behera utzi zen, matrikula gutxi egin zelako.
- ❖ Honako jarduera soziokultural hauek eskaini dira: Language Lab Blog-Gasteiz, hainbat gairi buruzko 8 sarrera eta 911 bisitekin; eta English PintxoPote, 2 orduko 10 saiorekin (4 saio lauhileko bakoitzean), non 6 pertsonak parte hartu duten batez beste (163 lagunek eman badute ere izena bilerei buruzko informazioa jasotzeko).
- ❖ Unibertsitateko kide guztiei Hizkuntzak Autoikasteko Multimedia Laborategia eskaintzen jarraitu da (ingelesa, frantsesa eta alemana ikasteko), hizkuntza modernoak interaktiboki ikasteko programekin eta tutore baten laguntza pedagogiko-linguistikoarekin. Ikasturte honetan 12 pertsona bertaratu dira lehenengo lauhilekoan ingelesera, eta 9 bigarreanean: 6 ingelesera eta 3 frantsesera.

## **5. Ekintzailletza eta laneratzea**

---

Ikasleen eta Enplegarritasunaren Errektoreordetzarekin lankidetzan:

### **5.1. INIZIA ArabaCampus programa garatzea Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin (Bic Araba) lankidetzan, Arabako Campusean ekintzailletza eta oinarri teknologikoko INIZIA enpresa haztegia bultzatzeko.**

Ekintzailletzarako kultura zabaltzeko jardunaren barruan, honako hauek dira Arabako Campuseko INIZIA programa garatzeko burutu diren jarduerak:

- ❖ I. T-IKER sariaren deialdia, enpresa ekimen berritzaile bihurtzeko aukera gehien lituzketen ikerketa proiektuak edo ideia zein enpresa berritzaile eta/edo oinarri teknologiko duten ideia onenak saritzeko asmoz. Sariketa honetan, UPV/EHUren Arabako campusean kokatutako 7 ikerketa talde edo ekipok hartu duten parte.
- ❖ Ekintzailletza kultura sustatzeko Ekinduz lehiaketa, 64 ikasleren parte hartzearekin (22 gizonezko eta 44 andrazko), Arabako campuseko ikastegi ezberdinetakoak.
- ❖ Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Vitoria-Gasteizko atala) ikastegi horietako ikasleekin lankidetzan Ekiten ikasten proiektuaren garapena. 7 ikasgela ezberdinetako 266 ikaslek hartu dute parte.
- ❖ Ekintzailletzari lotutako gaitasunei buruzko prestakuntza emateko tailerrak eta jardunaldiak. Arabako Campusaren unibertsitateko 74 kidek baino gehiagok parte hartu dute.
- ❖ Azaroaren 2 astetan zehar, profil diziplina anitzeko UPV/EHUren Arabako campuseko 5 ikasle gizonezko eta 5 ikasle andrazko (ingeniaritza, EAZ, zientzia eta farmazia), pentsamolde ekintzailea izanik, aukera izan dute Ginebran bertan, Suitzan, CERN Conseil Européen pour la Recherche Nucléaire kontseiluaren CBI Challenge Based Innovation programaren markoan ari diren ikertaldeek eguneroko lana ezagutzeko.
- ❖ Laguntza eta aholkularitza Arabako Campuseko enpresa haztegioko ekintzaileei.

- ❖ INIZIA DAY jardunaldia, INIZIA Arabacampus programaren barruan garatzen diren jarduera ezberdinak balioan jartzeko ekimena da. Jardunaldi horretan 36 pertsonak hartu zuten parte eta Ekinduz lehiaketaren eta I. T-IKER sariaren irabazleei eman zitzaien saria.
- ❖ Ekintza bateratuak diseinatzea eta exekutatzeko, ekintzaileen arteko harremanak sustatzeko; halaber, tokiko haztegien sare bat sortzea (Udala eta Bic Araba).
- ❖ "Araba ekintzaile" sarearen esparruan (Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteizko Udala eta Bic Araba dira gidari), unibertsitate pabiloian EKIN BREAKFAST bat egin zen: "Ekinez unibertsitatean bertan". 100 bat pertsona aritu ziren.
- ❖ Lankidetzak "Araba ekinean"-en XVIII. edizioan, ekimen ekintzaileei eman beharreko sariaren ebaluazio batzordeko kide gisa eta "Zure ideiak balio du 2019" ekimena bera lagunduz.
- ❖ Bic Araba CEIA Arabako Enpresa eta Berrikuntzarako Zentroa erakundearekin lankidetzak. Urteko Lankidetzak Hitzarmen Espezifikoak sinatu da, ekintzaileak sustatu, aholku eman eta laguntzeko programak egin daitezkeen, eta Arabako Campusean oinarri teknologikoa duten enpresak sortzeko (INIZIA ArabaCampus programa).
- ❖ Ikasturtean zehar, bi proiektu berri gehitu zaizkio INIZIA enpresa mintegiari: See You Zoom enpresa, Ingeniaritza Eskolako enpresa haztegitiko 1. inkubazio bulegoan ari dena, eta "Fakturen digitalizazioa" proiektua, mintegi bereko inkubazioaurreko eremuan kokatuta. Mintegia instalatutako gainerako enpresen jardueraren ebaluazioari dagokionez –Ebaluazio Batzordeak eginda–,aldeko txostena jaso dute guztiek.
- ❖ Eusko Jaurlaritzaren Gazte Ekintzailetza programa antolatzeke eta kudeatzeko lanetan esku hartu da. Horri loturik, 43 beka eman dira azken hiru ikasturteetan (2015/2016, 2016/2017 eta 2017/2018) UPV/EHU titulu ofizial bat lortu duten edo 2018/2019 ikasturtean gradu azken ikasturtean zein masterrean matrikulatuta dauden pertsonen garatutako enpresa ideia edo proiektuak laguntzeko.

## **5.2. Araban ekintzailletza bultzatzeko egiten diren ekimenetan parte hartu.**

Lankidetzaz Vitoria-Gasteizko Udalarekin, hitzarmen bat sinatuta, bai eta ekintzailletzan diharduten gainerako eragileekin eta egoitza teknologikoa Vitoria-Gasteizen duten haztegiekin ere (Ajebask, Bic Araba eta Udala).

## **5.3. Laneratzearekin eta enplegu zentroekin zerikusia daukaten jarduerak hedatu.**

Lankidetzaz egin da zenbait erakunde eta instituzioekin, pertsona gazteak, langabezia daudenak eta alde aurretik esperientzia gutxi edo esperientziarik ez dutenak kontratatatzeko.

## **5.4. Enplegurako orientazio gunea (Elurreta) koordinatu.**

Enpleguari buruzko orientazio gunearen koordinazioa. Elurreta eraikinean dago, eta bere helburuetako bat da laneratzeko orientazioa ematea eta Lanbide zerbitzuan izena eman dezaketen tituludunen enplegarritasuna hobetzea.

## **5.5. Ikasle graduatuen eta enpresen arteko lan bitartekaritza sustatu.**

Arabako Campusean zenbait ekintza egin dira Laneratzearen inguruan; besteak beste, "Hezkuntzatik lan mundurako trantsizioa" programan hartu da parte (Eusko Jaurjaritza), baita Santander-CRUE-CEPYME beka programan ere. Bi programak dira ikasleek praktikak egin ditzaten enpresa eta erakundeetan.

## **5.6. Ikastegiei laguntza eta aholku eman enpresetako praktiken gestiorako.**

Laguntza eman zaie campuseko ikastegiei borondatezko praktiken kudeaketan eta GAUR-PRAKTIGES plataformaren erabileran. Ondorioz, lortu dugu borondatezko praktikak eskaintzen dituzten campuseko ikastegi guztiek plataforma hori erabiltzea. 2018/2019 ikasturtean, 622 praktika egin dira campusean.

### **5.7. Enplegu-Gune 2018/2019 antolatzea (Vitoria-Gasteizko Enpleguaren Foroa), Vitoria-Gasteizko Udalaren Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorra Sailarekin lankidetzan.**

2018/2019ko Empleo Gunean, bi elkarretaratze burutu dira.

Horietako lehenengoa, 2018ko urriaren 30ean egin zen, lanerako orientazioa, lanez besteko praktikak eta nazioarteko mugikortasuna ardatz dituzten ekintzak eginez. Jardunaldian zehar, jarduera ezberdinak egin ziren enpresei, erakundeei eta lan bila ari diren pertsoneri eskainita, horien artean, nabarmendu behar delarik garagErasmus fundazioaren International Talent Match bezalako ekintza, Gasteizera lehendabizikoz iritsi zena estatu mailan.

Bigarren jardunaldia 2019ko otsailaren 14an egin zen, lan tartekaritzan oinarritutako elkarretaratzea izanik. "Lan tartekaritza eta gaitasun profesionalen hobetzea" tituluaz, prestakuntza tailerrak egin ziren jardunaldian zehar bai edozeinentzat nola orientazioko profesionalentzat, zeharkako gaitasunak, enplegu guneko jarduerak eta banakako orientaziorako saioak burutu zirelarik. Era berean, jardunaldiaren zehar, erakusketak ere egon ziren bertan parte hartzen zuten 34 enpresa eta erakundeetarako. Era berean, espazioak utzi ziren enpresen esku zeinek bere giza baliabideen politikaren berri eman eta indarreko enplegu eskaintzetarako elkarrizketak egin zitezten.

Aldi berean, urtarrileko hil osoan zehar eta jardunaldia egin arte, parte hartu zuten 34 enpresen 315 lan eskaintza gestionatu ziren [www.empleo-gune.org](http://www.empleo-gune.org) webgunearen bidez.

### **5.8. Lurralde nazionaleko eta atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikak egiteko programak antolatzea eta kudeatzea, UPV/EHUko graduako, masterretako eta doktoregoko ikasleentzat.**

- ❖ "Hezkuntzatik lan mundurako trantsizioa" programa (Eusko Jaurlaritza) antolatzeko eta kudeatzeko lanetan parte hartu da, ikasleek praktikak egin ditzaten enpresa eta erakundeetan. Aurtengo deialdian, 85 beka banatu dira Arabako Campuseko ikasleen artean (510 beka eman dira guztira).
- ❖ 2018/2019 ikasturtean Arabako Campusak, gainerako bi campusekin batera, parte hartu du ikasle egresatuen Erasmus+ EPEZ XI mugikortasun programan; zehazki, 36 graduatuk Europako enpresetan egin dituzte praktikak.



- ❖ 2018/2019 ikasturtean Arabako Campusak, gainerako bi campusekin batera, parte hartu du ikasleen Erasmus+ IkaslePraktikak mugikortasun programan; zehazki, UPV/EHUko graduako, masterretako eta doktoregoko 42 ikaslek (23 gizon eta 19 emakume) Europako erakunde eta enpresetan egin dituzte praktikak.
- ❖ Halaber, Enplegu Foroaren barnean saio espezifiko bat egin zen kontratazioari laguntzeko baliabideei buruz. Informazioa eman zen UPV/EHUk ikasleak laneratzeko eta enplegarritasunaren inguruan dituen baliabideen inguruan, bai eta egresatuei buruz ere (Erasmus+ EPEZ eta IkaslePraktikak, enpresetako praktikak egiteko "Hezkuntzatik lan mundurako trantsizioa" programa etab.). Halaber, Lanbidek eta Vitoria-Gasteizko Udalak enpleguaren, orientazioaren eta prestakuntzaren inguruan dituzten baliabideen inguruko informazioa eman zen.

## **6. Kalitate, prebentzio eta ingurumen programak**

---

### **6.1. Suteak atzemateko sistemak eta alarmak hobetzea.**

Telefonogunea aldatu da Elurreta eraikinean.

PI 105/18 lehiaketaren bidez, behar diren modulu eta elementuak jarri eta instalatu dira, bai eta gas zentralak eta igogailuak sute zentralekin konektatzea eta haien arteko komunikazioa ezarri da campuseko zenbait ikastegitan (Farmazia Fakultatean, Elurretan, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen egokitzean eta ataleko kiroldegian).

Suteen aurkako ekipoak berritu dira Zenbait ikastegitan, iraungitasun data kontutan hartuta.

### **6.2. Larrialdietako planak eguneratu eta simulakroak antolatu, lanerako zehaztutako egutegiari jarraituz.**

- ❖ Eguneratu dira autobabeserako planak Letren Fakultatean, Elurreta Ikasgelategian eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean.
- ❖ Eguneratu egin dira Campuseko zenbait ikastegitako larrialdi taldeen izendapenak.
- ❖ Ebakuazio simulazioei dagokienez, urteko lan egutegia Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordean adostu ondoren, 2018 ekitaldiko bigarren seihilekoari eta 2019ko lehenengo seihilekoari zegozkionak egin dira (2018/2019 ikasturtea).

### **6.3. Arauzko eta maiztasun jakin bateko ikuskatzeak egitea, eta neurri zuzentzaileak ezartzea, hala badagokio.**

- ❖ Kontrol organismo baimenduak aldian-aldian egin beharreko ikuskapena eginda campuseko eraikinetako suteen aurkako instalazioetan.
- ❖ Aldian aldiko ikuskatze lanak egin dira campuseko hainbat igogailutan.
- ❖ Altuerako segurtasun ekipoen ikuskaritza ere egin da campuseko eraikinetan.

## **7. Unibertsitate hedakuntza**

---

### **7.1. Kultur hedakuntzarako jarduerak.**

7.1.1. EHUkultura Araba programa zehaztu eta garatu, erakusketak, antzerkia, musika emanaldiak eta kultur ikastaroak antolatzeko.

Arabako campuseko errektoreordetzak kultur hedakuntzarako jarduera multzoa antolatu du, "EHUKultura Araba" programaren barruan bildu direnak.

Kontzertu musikalen kasuan, bertako taldeen taularatzea sustatu da eta, honi esker, ekitaldien kopurua gehitu da eta, beste alde batetik, konexio estuagoa lortu da Arabako lurralde historikoko kultur eragileekin. Gainera, ekipoari gehitu zaio ikasle, AZP eta IRiren EHUTERPE unibertsitate elkarte korala.

Apustua ere egin nahi izan da teatroarengatik (ingelesez), lauhilekoetan gure ikasleek teatro piezak taulara ditzaten eskaintzen diren kultur ikastaroen bidez. Lan ildo honen barruan, ingelesezko teatro ikastaroz gainera, beste era bateko ikastaroak ere gehitu dira, unibertsitateko kideei eskaintza zabal eta aktiboa eskaini nahian.

Programaren barruan honako kultur jarduera hauek sartu dira:

- ❖ ERAKUSKETAK (6): "Utriusque vasconiae" (18/10/16-18/11/16), "Haurtzaroaren arte eta kulturarako eskubideak" (2018/11/20 - 2018/12/21), "Holokaustoaren 13 zutabeak" (2019 /01/10 -2019/01/30), "Transdiziplinaritaterako bidean: Kriminologiaren Euskal Institutuak 40 urte" (2019 /03/04- 2019/03/29), "Solstiziotik solstiziora, Amerikan barrena" (2019 /04/01-2019/05/17), "Erdiko lurraldeko zuhaitzak" (2019 /06/17-2019/06/21).
- ❖ KONTZERTU MUSIKALAK (8): "Dr. Maha's Miracle tonic" (2018/10/10), "Together for Christmas-Coro de la E.I. Vitoria-Gasteizko IEko korua & UPV/EHUko orkestra" (2018/12/16), "Musika eta poesia –Bachué kolektiboa" (2019/01/31), "Placton Band" (2019/02/07), "EHUTERPE korua" (2019/02/22), "Aldakan Beltz" (2019/03/07), "Nublía" (2019/05/16), "Aldakan Beltz" (2019/06/06).
- ❖ TEATROA (3): "Frontoia: begiz eta hotsez" (2018/18/10), "Pez Limbo –El gran mercado-" (2018/11/22), "Theatre" (2019/05/15).

- ❖ KULTURA IKASTAROAK (8): Lehenengo lauhilekoa: "Teatroa" (ingelesez), "Zinea" (euskaraz), "Oratoria, argumentación y debate" (gaztelaniaz), "Escritura creativa" (gaztelaniaz). Bigarren lauhilekoa: "Teatroa" (ingelesez), "Musika" (euskaraz), "Oratoria, argumentación y debate" (gaztelaniaz), "Escritura creativa" (gaztelaniaz).

7.1.2. Campus V.O. programazioa. Jatorrizko bertsioko film emanaldiak antolatu beste erakunde batzuekin batera.

Atal honetan, orain arteko lan ildoa jarraipena emateaz gain, Iragarri unibertsitate elkartearen lankidetzaren gehitu da, eskaintzari zineforum formatuaren eskaintza (filma+solosaldea) ekarri diolarik. Era honetara, ohiko eskaintza handitu da, jatorrizko bertsioren, tailerren, maratoiaren eta zineforumen artean 9 film proiektatuz.

- ✓ Zinema tailerra: "Sahara begiradan, Saharar herriaren irudia zinemaren bidez birpentsatzen" (28/02/2019)
- ✓ Frantseseko jatorrizko bertsioko zinema maratokia (4 film): "Yann Arthus-Bertrand" (2019/03/27)
- ✓ "IRAGARRI" zineforumeko saioak (02/21, 03/14, 05/16, 05/23 2019an).

7.1.3. Kultur eta hedakuntzarako jarduerak tokiko prentsan eta hedabide espezializatuetan areago zabaltzeko, bai eta Interneten, prentsaurrekoen eta abarren bidez ere.

Arabako Campuseko kultur jardueren berri jaso da tokiko prentsan eta prentsa espezializatuan, nabarmendu behar delarik prentsa idatziak programaren promozioan egin duen lana. Halaber, egindako jardueren berri eman da sare sozialen bidez (INSTAGRAM eta FACEBOOK).

7.1.4. Hiriko kultur eragileekin lankidetzaren hitzarmenak bultzatzea.

Unibertsitate hedakuntzarako jardueren artean, Gasteizko kultur eragile ezberdinekiko lankidetzaren sustatu da, honen ondorioz, akordio ezberdinetan gauzatu dena, besteak beste, Vital fundazioarekin eta Vitoria/Gasteizko udalarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena, CORTADA jaialdiarekin lankidetzaren jarduteko. Jaialdi horrek Espainiako Zinema Akademiaren aitortzea du Goya sarietarako jaialdi kalifikatzaile gisa. Halaber, EGEDA kudeaketa erakundearen aitortzea du, Forqué sarietarako jaialdi kalifikatzaile gisa. Azkenik, Asociación Española del

Cortometraje (AIC) elkarteak kalitate ziurtagiria eman dio lehiaketari. Era berean, erakundeek laguntza ere eskaini dute "Musiversika" jaialdi musikala gauzatzeko.

7.1.5. Campusean kultur jarduerak (biltzarrak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak) bultzatu, laguntzak emateko deialdien bidez.

Hainbat kultura ikasgela eta tailer antolatu ditugu. Era berean, laguntzak eman ditugu Campusean biltzarrak, mintegiak, ikastaroak eta kultura jarduerak antolatzeko.

Arlo honetan, bitariko ekintzak azpimarratu ahal dira.

Lehenengo eta behin, The Vitorian Society ikasleen elkarte kultural eta literarioarekiko lankidetzak. Aurtengo ikasturte honetan 8 jarduera zuzendu ditu elkarte honek, literaturatik abiatu eta solasaldia eta pentsamendu kritikoari begirakoak. Hona tituluak: "Hezkuntza" (2018/1810/), "Arraza gaiak" (2018/11/15), "Bideojokak eta literaturak: Soraren odisea" (2018/12/13), "Feminismoa" (2018/12/20), "Orfeo zuria eta Orfeo beltza: mitoaren adierazpideak underground musikan" (2018/02/14), "Avalon" (2019/04/04) "Descendus ad inferos ikusentzuteko sormenean: twin peaks" (2018/04/11).

Bigarrenkoz, jarduera berri bat antolatu da, urterokoa, LITERATURCAMPUS izenaz: Arabako campuseko literatur elkarretaratzeak non akademikoek eta idazleek parte hartuko baitute jardunaldi batean elkarri sormenezko esperientziak trukatzeko. Lehenengo edizio honetan, 2019ko martxoaren 21ean egin zelarik, garaiko poesia nazionala izan du ardatz eta parte hartzaileen artean Raquel Lanseros, Jon Juaristi, Francisco Díaz de Castro eta José Fernández de la Sota egon ziren.

## **7.2. Unibertsitatearen irudia zabaltzeko jarduerak.**

2018ko abenduan, ahalegin handia egin zen unibertsitatearen izen eta irudia hirian barrena zabaltzeko. Helburu horrekin, hainbat ekintzari ekin zitzaion.

Eguberrietan zehar, UPV/EHUren marka, oro har, eta EHUkultura, bereziki, presente egon ziren hiriaren erdialdean (Foruen plazan). Hiru kubo publizitario diseinatu ziren eta bertan jaso Arabako Campuseko errektoreordetzak kulturaren arloan garatzen dituen ekintzak.

#### 7.2.1. Iritzi artikuluen lehiaketaren deialdia.

Lehiaketara 15 iritzi artikulua aurkeztu ziren. Ohi den moduan, saritutako artikulua *El Correo* egunkarian argitaratu zen.

#### 7.2.2. Kontakizun laburren lehiaketaren deialdia.

Lehiaketa esparru nazionalera eta unibertsitariora mugatzea erabaki zen, eta 35 ipuin aurkeztu ziren. Lortu da lehiaketa honen indarra berritzea, aurreko urteetan parte hartzea galduz joan baita.

Lehiaketaren berrikuntzarik nabarmenena euskarazko modalitatean izan zen, honetarako saia hutsik geratu bazen ere (3 lan besterik ez ziren aurkeztu eta, epaimahaiaren iritziz, batek ere ez zeukan gutxieneko literatur kalitaterik).

#### 7.2.3. "EHUSKARABANDA" bideo maratoiaren deialdia (2018ko abenduaren 18an)

Zinema jardunaldi honen bidez film labur bat egin nahi da euskaraz Aurtengo edizio honetan, 9 taldek (45 pertsonak) hartu zuten parte.

#### 7.2.4. Vitoria-Gasteizko CORTADA film laburren XXII. lehiaketarako deialdia (2018ko abenduaren 12-15)

1.500 film labur aurkeztu ziren, eta horietatik 66 hautatu ziren. Erakunde batzuek babesia eman zuten berriz ere, hala nola Vitoria-Gasteizko Udalak eta Vital Fundazioak.

#### 7.2.5. MUSIVERSIKA deialdia (2019ko apirilaren 11an)

Jardunaldi honetan, UPV/EHUren zuzeneko unibertsitate musikaren II. lehiaketa egin zen. Finalean 3 taldek hartu zuten parte eta, orotara, 5 taldek eman zuten izena. Neurriak eta formulak aztertzen ari dira unibertsitateko kideek gehiago har dezaten parte lehiaketa honetan.

Halaber, UPV/EHUren Arabako Campuseko errektoreordetzaren unibertsitate pabiloitik ikasturtean zehar pasatzen diren taldeen kopuruari erreparaturik, deialdia egin dugu eragin mediatiko handiena eta kontzertuetan jarraitzaile gehien izan duten hiru taldeen artean banatu beharreko saria.

### 7.3. Kirol ekintzak

#### 7.3.1. Kirol lehiaketetan parte hartzea.

- ❖ Arabako campuseko barne lehiaketa: jarduera honetan, osorik subentzionatutakoan, guztira unibertsitateko 1.357 ikaslek hartu dute parte (995 gizonezko eta 362 andrazko). Arabako campuseko ikasle guztietatik, orotara 7.428 ikasleen artetik, % 18,27koa izan da parte hartzearen ehunekoa. Datuen arabera, programa honetan izena emandako pertsonen artean % 73 gizonezkoak dira. Lehendabizikoz, futbol 7 eta areto futbol mistoaren maratoian, parte hartzeko irizpidea izan da jokoan gutxienez sexu bakoitzeko bina jokalarari egon beharra.  
Basket 3x3, areto futbol misto eta futbol 7 mistoaren lehiaketa puntualetan parte hartu ahal izateko, joko garbia eskatu da. Esperientzia pilotu gisa, txapelketa jakin batzuetan parte hartu duten ikasleak izan dira epaile lanak egin, ekintzak garatu eta txapelketa bakoitzean erabakiak hartu dituztenak.
- ❖ UPV/EHUren txapelketa: Arabako Campusa irabazle izan da modalitateotan: andrazko eskubaloia, gizonezko futbol 7, xakea, gizonezko eta andrazko frontenisa, andrazko areto futbola, gizonezko boleibola eta gizonezko padela.
- ❖ EAEko txapelketa: Lehendabizikoz sartu da sokatiraren modalitatea, Arabako campusak zeharo dominatu duelarik. Arabako campusaren ordezkari izan diren ikasleak irabazle suertatu dira andrazko eskubaloian, andrazko areto futbolean, gizonezko futbol 7koan, sokatiran gizonezko, andrazko eta mistoan, banaka eta binakako frontenis gizonezkoan, gizonezko binakako gomazko paletan eta banakako mahai tenis gizonezkoan.
- ❖ CEUren U23 fasea: Espainiako unibertsitate txapelketaren aurretiko faseak Santander eta Pontevedran lehiatu dira. Arabako campuseko ordezkaritza gizonezko boleibolaren, andrazko areto futbolaren eta andrazko eskubaloia modalitateetan izan da.

- ❖ CEU: Espainiako Unibertsitate Txapelketa Valentzian lehiatu da. Arabako campuseko ordezkariak andrazko tenisaren, xakearen, gizonezko hondartza boleibolaren, gizonezko mahai tenisaren, gizonezko eta andrazko judoaren, gizonezko eta andrazko taekwondoaren, padelaren eta karatearen modalitateetan izan da. Andrazkoen binakako teniseko bikoteak zilarrezko domina lortu du.
- ❖ Arabako campuseko kirol zerbitzuak Zabalki pilotako nazioarteko txapelketa antolatu du gizonezko eta andrazkoen modalitate hauetan: frontenisa, esku pilota, gomazko paleta, larruzko paleta, paleta argentinarra eta zeta punta. Orotara, 117 pilotarik hartu dute parte, 91 gizonezko eta 26 emakumezko, estatuko 7 unibertsitateetatik, Frantziako 5etatik eta Mexikoko unibertsitate batetik etorrira. Parte hartzaile guztietatik 17 izan dira UPV/EHUkoak. 13 gizonezko eta 4 emakumezko.
- ❖ Enpresen lasterketan, 26 pertsona aritu dira Arabako campusaren ordezkari (12 gizon eta 9 emakume).

### 7.3.2. Lauhileko ikastaroak eta beste kirol jarduera batzuk.

- ❖ Jarduera fisikoa sustatzeari dagokionez (lehiarik gabeko jarduera gidatua), ikastaro sorta zabala antolatu dugu. Guztira, 24 talde izan dira, 8 kirol modalitate ezberdinetan, 451 unibertsitarioren parte hartzeaz (365 emakume eta 86 gizon). Nabarmendu beharrekoa da programa hauetan izena eman duten pertsonen %81a emakumeak direla eta %50eko subentzioa besterik ez dutela.
- ❖ Gasteizko udalak aldatu du udalaren kirol instalazioetara sartzeko unibertsitate txartelak eta, hauen ordezkari, ordainketa bereziko kuota ezarri du 18 eta 24 urte bitarteko pertsonentzat.
- ❖ Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena, unibertsitateko kideen artean kirolaren irakaskuntza eta zabalkuntza sustatzeko. Gure kirol jarduerak egin eta burutzeko behar ditugun kirol instalazio eta aretoak ditugu.
- ❖ Kirol Bidean udal kanpaina bultzatu dugu, naturan eginiko jardueren programaren baitan; 21 pertsonak parte hartu dute (14 emakume eta 7 gizon).
- ❖ Lankidetzaren hitzarmena Rugby Gaztedi klubarekin, rugby kirol eskola garatzeko.



- ❖ Halaber, lankidetzak akordioak sinatu dira 28 gimnasio edo kirolgune itundurekin, eta 510 ikaslek jo dute horietara (306 emakume eta 204 gizon).
- ❖ Elkarlanean aritu gara hainbat erakunderekin; hala nola, Estadio Fundazioarekin, Kirol Federakuntzen Arabako Federazioarekin (KFAF) ariketa fisikoa, osasuna, kirola eta desgaitasuna, kirol psikologia... eta, or har, kirol kulturari loturiko gaien inguruan hitzaldiak, zineforum saioak eta solasaldien bidez. Ikasturte honetan, 17 hitzaldi antolatu dira.
- ❖ Lankidetzak egin da Estadio fundazioarekin, "Zine forum" ziklo bat eskaintzeko, 4 filmekin, horien eta kirolaren inguruan eztabaidatze aldera.
- ❖ 23 ziurtagiri eman zaizkie Arabako Campuseko goi mailako eta errendimendu handiko unibertsitateko kirolarien tutorizazio plan egin nahi izan duten ikasleentzat.
- ❖ 500 bat ikaslek egin dute graduako ikasketetan kredituak aitortzeko eta transferitzeko eskaera.

**CAMPUS DE ÁLAVA**  
**INFORME DE GESTIÓN**  
**2018/2019**

**1. Infraestructuras**

---

**1.1. Desarrollar el plan de intervención de reformas, mejoras y adecuaciones en diferentes centros.**

- ❖ Siguiendo la tónica de ejercicios anteriores, se ha continuado con la instalación de nuevos techos acústicos modulares para garantizar el acondicionamiento acústico y se han adecuado las instalaciones de iluminación mediante la sustitución de luminarias por otras más respetuosas con el medio ambiente en aulas y locales del Campus. Así pues, mediante el PA 92/18 se han adecuado diversos locales y espacios.
- ❖ En la Facultad de Educación y Deporte – Educación:
  - Se ha reformado el aula 203 instalando nuevos techos acústicos y sustituyendo tanto las luminarias como las luminarias de emergencia.
  - Asimismo, se ha reformado el techo del pasillo de despachos de la planta segunda, instalando nuevos techos acústicos así como sustituyendo luminarias y luminarias de emergencia.
  - También se ha procedido a la sustitución de las ventanas existentes en varios locales de la planta segunda con el fin de conseguir un mayor aislamiento térmico/acústico y mejorar la transmisividad térmica del edificio.
- ❖ En la Escuela de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz:
  - Se han remodelado varios despachos y se han adaptado las luminarias de los pasillos de la planta primera.
- ❖ En la Facultad de Farmacia:
  - Se ha remodelado el espacio IKD situado en la planta baja del edificio (techos acústicos, luminarias y revestimientos para su uso como espacio de trabajo y ocio por parte del alumnado).
  - Asimismo, se han reformado las aulas 2.6 y 2.2, y se ha procedido a la electrificación de las mesas del laboratorio polivalente II.

- Igualmente, se han instalado nuevas luminarias y control de iluminación en el pasillo E1 de planta primera, así como luminarias de emergencia con ecoopermanencia de cara al ahorro energético en los pasillos E1 y E2 de planta primera.
- Se han realizado los trabajos preliminares para la creación de un aula de simulación de farmacia.
- ❖ En la Facultad de Letras:
  - Se han instalado nuevas luminarias y control de iluminación en los pasillos de planta baja.
  - Se han sustituido ventanales de la fachada norte con nueva carpintería de aluminio y vidrio climático.
- ❖ En la Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social:
  - Se han instalado nuevos tabiques acústicos en un seminario y en la sala de profesorado para la mejora de la insonorización.
- ❖ Se han realizado diversos trabajos dirigidos a la mejora de las instalaciones del laboratorio de arqueología del Centro de Investigación Micaela Portilla.
- ❖ Debido al progresivo deterioro de los revestimientos de diversos paramentos de algunos de los edificios del Campus, se han realizado diversos trabajos de pintura en locales situados en la Facultad de Educación y Deporte, en la Escuela de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz, en el Aulario de Las Nieves y en el Centro de Investigación Lascaray.
- ❖ Se ha continuado con los trabajos de revisión y mantenimiento de las puertas automáticas instaladas en los accesos principales de los edificios del Campus.

## **1.2. Desarrollo de actuaciones para dotar de una nueva ubicación a la Unidad Docente de Medicina (curso 2018/2019 y siguientes).**

Debido a la ampliación y mejora del Hospital Universitario de Álava Osakidetza ha demolido el edificio que albergaba la Unidad Docente de Medicina de Álava. Con carácter transitorio se ha ubicado en el Campus la actividad docente y administrativa de la citada Unidad Docente, dado que en las inmediaciones del Hospital Universitario de Álava no existía ninguna infraestructura que reuniese las características necesarias para garantizar los citados usos.

